


Zeri egiten zioten barre erromatarrek?



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Erroma, 192. Marko Aurelio Komodo enperadoreak ikuskizun handia antolatu zuen 50.000 ikuslek betetako Koliseoan. Komodok ikuskizuneko protagonista izan nahi zuen eta, horregatik, aurrez hilzorian utzitako hartz batzuei lantzak jaurti zizkien, sareetan harrapatutako beste animalia batzuk hil zituen eta haren aurka inolako ahaleginik egin ez zuten gladiadore batzuk ere mende hartu zituen. Erakustaldi ahaltzu eta heroikoa behar zuen, baina emaitza barregarria izan zen. Eta enperadoreak lehen lerroetako patrizioei ostruka baten buru odoleztatua erakutsi zienean, barrez lehertzeko zorian egon ziren senatariak –*vehementius risimus* esango zuketzen haiek–. Beste enperadore batzuek ondo hartzen zituzten haien kontura herritarrek botatzen zituzten algarak, bereziki Augustok, baina Komodo ez zegoen horien artean. Horregatik, senatariak barreri eutsi behar zioten, ostruka hark bezala bukatu nahi ez bazuten. Haietako batek, Kasio Dioneke, buruan zeraman koroari erramu hostoak kendu zizkion, ahoan sartu zituen eta mastekatzeari ekin zion, barrez lehertu baino lehen. Kasio eta gainerako senatariak onik atera ziren Koliseotik; Komodo handik gutxira hil zuten.

Pasarte hau Kasio Dioneke berak kontaktatu zuen Erromako historiari buruz idatzitako 80 liburukietatik azkenekoan. Eta duela urte batzuk Mary Beard historialari ezagunak jaso zuen *Laughter in Ancient Rome* (Barrea antzinako Erroman) lanean. Beard Erromari buruzko lan dibulgatzaile eta entretenigarriengatik da ezaguna, baina juxtu umoreari buruz hitz egiteko inoiz baino serioago eta akademikoago jardun zuen: antzinako testuak aztertu, txisteetako hitzen etimologia bilatu, erromatar umoreari buruzko beste lan teoriko batzuk azaldu eta ezbaian jarri ditu.

Aztertutako testuen artean IV. mendeko *Philogelos* bilduma dago, orain arte aurkitu den txiste bildumarik zaharrena. Grezieraz idatzita egon arren, Erromako 265 txiste jasotzen ditu. Hauxe da horie-



NAPOLIKO MUSEO ARKEOLOGIKOA

tako bat: “Nola nahi duzu ilea moztea?” galdetu zuen ile-apaintzaileak, eta bezeroak erantzun, “Isilik!”.

ANTZINAROKO UMOREA, GAUR ARTE

Adibideari erreparatuta, ez dirudi 2.000 urtetan txistek asko aldatu direnik. Txiste onak eta txarrak botatzen zituzten, gaur bezala, eta Zizeronek berak aholkatzen zuen tarteka txiste txarrak botatzea, txiste onak gehiago nabarmendu zitezten. Garai hartan Abderako biztanleen lepotik egiten zuten barre nagusiki, eta egun, Traziako hiria desagertuta, beste toki batzuetako biztanleak hartu ohi ditugu biktimatzat; eunukorik ere ez dago gaur egun, baina ustezko maskulinitate gabeziak oraindik grazia egiten die batzuei. Gizarte oso mi-

soginoa zen Erromakoa, eta emazteei tratu txarrak ematen dizkieten senarrei buruzko txisteren bat, esaterako, iritsi zaigu. Txiste arrazistak egiteko ohiturarik, aldiz, ez zeukaten. Antzinako Erroman ez zegoen arrazakeriarik, zentzu kolonialistan behintzat. Berdin zitzairen norbaitek Asian, Afrikan edo Erroman bertan jatorria izatea; axola zuena klase soziala zen. Arrazista ez, baina zeharo klasista baitzen inperioa. Hala, gustu txarreko txistek egiten zizkieten azpitik zeuden guztiei: pobreei, esklaboei, emakumei...

Baina alderantziz ere gertatzen zen. Gaur egun bezala, boteretsuen bizkar barre egitea haien kontrako armetako bat zen, maiz bakarra, tarteka erramu hostoak irenstea beste erremediorik ez zuten arren. ●